

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Bilboko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute

- Maialen Olabek presidentek sinatutako akordioaren garrantzia azpimarratu du, gazteen iritzia politika publikoetan islatzeko balioko duelako
- Apirilaren 6an BilboRock espazioan gazteria legea aztertzeko topaketa egingo duela aurreratu du EGK-k

Bilbon, 2019ko martxoaren 28an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bilboko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute. Honen bitartez bi erakundeak elkarlanean arituko dira, hainbat proiekturen bitartez, gazteen beharrak asetzeko, hauen iritzi eta proposamenak administrazio eta arduradun politikoei helarazteko eta politika publikoak diseinatzeko espazioetan euren presentzia bermatzeko.

Maialen Olabek, EGK-ko presidentek, nabarmendu du elkarten plataformarentzat hitzarmena oso garrantzitsua dela. “Elkarlana eta zeharkakotasuna sustatuko du eta aukera emango digu gazteriaren ahotsa Bilboko Udalera eramateko eta sortzen diren proiektuak gazte ikuspegiarekin landutakoak izateko”.

Era berean, EGK-ko presidentek gogoratu du plataformaren helburua politika publikoetan “genero-ikuspegia txertatzea” dela, eta fase guztietan “gazteen ahotsa eta presentzia bermatzea”. Horretarako, Olabek adierazi duenez, 2019an Bilboko Udalarekin hainbat proiektu aurrera eramango dira. Guzti hauen bitartez, “gazteen iritzi, ideia, proposamen eta proiektuak” helaraztea da asmoa, ostean, politika publikoetan kontuan izan ditzaten.

Gazteria legea jorrazeko topaketa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko presidentek aurreratu du datorren apirilaren 6an, larunbata, BilboRocken topaketa antolatu duela elkarten plataformak Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen gazteria legearen aurreproiektua aztertzeko. Ekitaldi honetan, dinamika parte-hartzaileen bitartez, legeak dituen atal ezberdinak jorrazuko dira gazte eta gazte-elkarteekin hobekuntza proposamenak egiteko eta, “guztion laguntzarekin merezi dugun legea lortzeko”.